

Expedientea	2024IORD0006
Saila	Kultura, Festak eta Gazteria
Gaia	Tolosako udalerrian barraken eta feria atrakzioen instalazioa arautzea

AURREIAZKO KONTSULTA PUBLIKOA, TOLOSAKO UDALERRIAN BARRAKEN ETA FERIA ATRAKZIOEN INSTALAZIOA ARAUTZEKO	TRAMITE DE CONSULTA PÚBLICA PREVIA PARA LA ELABORACIÓN DE LA ORDENANZA REGULADORA DE LA BARRACAS Y FERIA DE ATRACCIONES EN TOLOSA
<p>39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Procedura Erkidearenak, VI. Tituluan arautzen ditu administrazio publikoen legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala, eta berritasun batzuk ditu aurreko erregulazioaren aldean, helburu nagusia izanik herritarren parte-hartza areagotzea arauak lantzeko prozeduretan.</p> <p>Hartara, 39/2015 Legearen 133. artikuluan xedatutakoaren arabera, konsulta publikoa egin behar da araudi-proiektu bat prestatu aurretik. Honako hau dio aipatutako artikuluak:</p> <p>«133. artikula. Herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartza.</p> <ul style="list-style-type: none"> 1. Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, konsulta publico bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitarte, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkarrirenek puntu hauei buruz: 2. Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak. 3. Arau hori onestea beharrezko eta egoki den. 4. Arauaren helburuak. 5. Izan litekeen bestelako aukera erregulatziale eta ez-erregulatzialeak». <p>Oraingo honetan, Tolosako Udalaren asmoa da Tolosako udalerrian barrakak eta atrakzio feriak instalatzeko ordenantza bat sortzea eta,</p>	<p>La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en su Título VI, regula la iniciativa legislativa y la potestad reglamentaria de las Administraciones Públicas, con algunas novedades respecto a la regulación anterior, con el objetivo principal de incrementar la participación ciudadana en los procedimientos de elaboración de normas.</p> <p>Así, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 133 de la Ley 39/2015, debe realizarse una consulta pública previa a la elaboración de un proyecto normativo. El citado artículo dice lo siguiente:</p> <p>«Artículo 133. Participación de la ciudadanía en el procedimiento de elaboración de normas y reglamentos con rango de ley.</p> <ul style="list-style-type: none"> 1. Con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o reglamento, se tramitará una consulta pública a través de la página web de la administración competente, en la que se recogerá la opinión de los sujetos y organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma sobre los siguientes puntos: 2. Problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa. 3. La necesidad y oportunidad de su aprobación. 4. Objetivos de la norma. 5. Posibles alternativas regulatorias y no regulatorias». <p>En esta ocasión, la intención del Ayuntamiento de Tolosa es crear una ordenanza para la instalación de barracas y atracciones de feria en el municipio de Tolosa, y, en cumplimiento de lo establecido por la ley,</p>

Expedientea	2024IORD0006
Saila	Kultura, Festak eta Gazteria
Gaia	Tolosako udalerrian barraken eta feria atrakzioen instalazioa arautzea

<p>legeak ezarritakoa betez, aldez aurreko kontsulta publikoa egingo du, Ordenanza sortu eta onartu aurretik.</p> <p>Herritarrek, erakundeek eta elkarteek parte hartu ahal izango dute, hala iritziz gero, eta ekarpenak egin, Tolosako Udalaren Erregistroan aurkeztuta; herritar fisikoen kasuan, aurrez aurre edo modu telematikoan, eta pertsona juridikoen kasuan, modu telematikoan.</p> <p>Horretarako, 20 egun izango dituzte, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta.</p>	<p>realizará una consulta pública previa, previa a la creación y aprobación de la Ordenanza.</p>
<p>Podrán participar ciudadanos/as, entidades y asociaciones, si así lo estiman, y realizar aportaciones, presentadas en el Registro del Ayuntamiento de Tolosa; en el caso de ciudadanos/as físicos/as, de forma presencial o telemática, y en el caso de personas jurídicas, de forma telemática.</p> <p>A tal efecto, dispondrán de 20 días, a contar desde el siguiente a la publicación del anuncio. el municipio de Tolosa.</p>	
<p>EKIMENAREN BITARTEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</p>	<p>PROBLEMAS QUE SE PRETENDEN SOLUCIONAR CON LA INICIATIVA</p>
<p>Barvakak eta feriako atrakzioak Tolosako jai nagusi eta auzo-jaietarako funtsezko elementuak dira, batez ere, haurrentzat. Festen nortasunaren funtsezko osagai eta bereizgarri dira, eta horiekin zerikusia duen guztiak interes publiko berezia hartzen du. Are gehiago udal administrazioaren espazio publikoan kokatzen badira, eta, bistan denez, espazio hori ezin bada beste ezertarako erabili barvakak eta atrakzioak jarrita dauden bitartean.</p> <p>Tolosako Udalak ez du araurik horien instalazioa alderdi guztiak kontuan hartuta erregulatzeko. Hori horrela, egun, garrantzitsua da alderdi batzuk arautuko dituen araudi bat sortzea; esate baterako, honako hauek: administrazioaren baimena nork eska dezakeen; instalazioen artean ezarritako espazioa nola banatzen den; eskaintza onuragarriena aukeratzeko prozedura zein den; espazioa erabiltzeko baldintzak zein diren; baimenen esleipendunen eta Udalaren betebeharrak; segurtasun neurriak, musika, errrotulazioak, irudiak, hondakinen kudeaketa; zein eratako arau-haustea zigortzen diren eta nola; eta aztertzen ari garen jardueraren araubide juridikoa taxutzen duten gainerako alderdiak.</p>	<p>Las barracas y atracciones de feria son un elemento fundamental en las fiestas principales y de barrio de Tolosa, sobre todo para los/las niños/as. Son un elemento imprescindible y distintivo en el carácter de las fiestas, y todo lo relacionado con ellas reviste especial interés público. Más aún, si se ubican en un espacio público de administración municipal, y del que, como es obvio, no puede disponerse para otros usos mientras las barracas y atracciones estén instaladas.</p> <p>El Ayuntamiento de Tolosa no tiene ninguna norma que regule todos los aspectos de su instalación. En este sentido, en la actualidad es importante crear una normativa que regule aspectos como quién puede solicitar la autorización administrativa, cómo se distribuye el espacio establecido entre las instalaciones, cuál es el procedimiento para elegir la oferta más ventajosa, cuáles son las condiciones de uso del espacio, las obligaciones de los/las adjudicatarios/as de las autorizaciones y del ayuntamiento, las medidas de seguridad, música, rotulaciones, imágenes, gestión de residuos, qué tipo de infracciones se sancionan y cómo, y demás aspectos que configuran el régimen jurídico de la actividad objeto de esta iniciativa.</p>

Expedientea	2024IORD0006
Saila	Kultura, Festak eta Gazteria
Gaia	Tolosako udalerrian barraken eta feria atrakzioen instalazioa arautzea

<p>Bestetik, eskumenak eta gaikuntza ematen dizkio arauak Udalari zaintza eta kontrol lanak egiteko, eta zigorak jartzeko. Horrez gain, arau honek barraka eta atrakzioen instalazioa sustatu nahi du, haurrek eta nagusiek gozatzeko moduan. Ez du antolamendu murriztailea izateko asmorik, baizik eta asmo bikoitza: alde batetik, atrakzio eta barraketako langileei beren jarduera egiten uztea, eta, bestetik, erabiltzaile eta kontsumitzaleen eskubideak nahiz jarduerarekin zerikusirik ez duten pertsonen eskubideak bermatzea.</p>	<p>Por otra parte, la norma atribuye al Ayuntamiento competencias y habilitación para ejercer funciones de vigilancia, control e imposición de sanciones. Además, esta norma pretende fomentar la instalación de barracas y atracciones de manera que niños/as y mayores las disfruten. No pretende ser una organización restrictiva, sino de una doble pretensión: por un lado, permitir al personal de las atracciones y barracas desarrollar su actividad y, por otro, garantizar los derechos de las personas usuarias y consumidoras, así como los derechos de las personas ajenas a la actividad.</p>
<p>ORDENANTZA BEHARREZKOTASUNA EGOKITASUNA</p>	<p>ONESTEAREN ETA NECESIDAD E IDONEIDAD DE LA APROBACIÓN DE LA ORDENANZA</p>
<p>Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerei buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 28. artikuluaren arabera, «udal lizenzia edo baimena» behar dute, «ikuskizun eta aisialdiko jarduerak egiteko behin-behinekoak, eramangarriak edo desmuntagarriak diren instalazioek edo egiturek». Era berean, 30. artikuluak berariaz xedatzen duenez, «barrakak eta azoketako atrakzioak jartzeko baimena horiek jartzen diren tokiko udalak emango du», eta artikuluak ikuskizunak eta aisialdiko jarduerak bide edo espazio publikoetan egiteko baimena udal-araudiaren mende uzten du, espazio publikoaren erabilera bereziari edo pribatiboari buruzkoa dena.</p> <p>Beharrezkoa eta egokia da araua onestea, hura administrazio elektronikoari buruzko arau-eskakizunei lotuta eguneratzeko, azken urteotan Tolosan barrakak eta atrakzio feriak jartzeari dagokionez izan duen bilakaera egoki jaso dezan, eta horiez gain, erabiltzaile eta kontsumitzaleen eskubideak nahiz jarduerarekin zerikusirik ez duten pertsonen eskubideak bermatzeko.</p>	<p>El artículo 28 de la Ley 10/2015, de 23 de diciembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas del País Vasco somete a «licencia o autorización municipal», las «instalaciones o estructuras eventuales, portátiles o desmontables para la celebración de espectáculos o actividades recreativas». Asimismo, el artículo 30 dispone expresamente que «la autorización de la instalación de barracas y atracciones de feria corresponde al municipio donde se instalen», y el 33 remite la autorización de la celebración de espectáculos y actividades recreativas en vías o espacios públicos a la normativa municipal sobre utilización especial o privativa del espacio público.</p> <p>Resulta necesario y oportuno aprobar la norma para su actualización en cuanto a los requerimientos normativos relativos a la administración electrónica, de forma que recoja adecuadamente la evolución que ha tenido en los últimos años en cuanto a la instalación de barracas y atracciones de ferias en Tolosa, así como para garantizar los derechos de las personas usuarias y consumidoras y de las personas ajenas a la actividad.</p>

Expedientea	2024IORD0006
Saila	Kultura, Festak eta Gazteria
Gaia	Tolosako udalerrian barraken eta feria atrakzioen instalazioa arautzea

ALDAKETAREN HELBURUA	OBJETO DE LA MODIFICACIÓN
<ul style="list-style-type: none"> Barraka eta feria-atrakzioen funtzionamendua eraginkorragoa egitea. Barrakak eta feria-atrakzioak artzeko baldintza teknikoak zehaztea. Barrakak eta feria-atrakzioen higiene eta segurtasuna hobetzea. Hizkuntz, ingurumen eta berdintasun irizpideak zehaztea. Elikagaiei eta kontsumoari buruzko legeriara egokitzea, dokumentazioa eta baimenen epeak berrikustea. 	<ul style="list-style-type: none"> Hacer más eficiente el funcionamiento de las barracas y las atracciones de ferias. Determinar las condiciones técnicas de las barracas, y las atracciones de ferias. Mejorar la higiene y seguridad de las barracas y las atracciones de ferias. Definir criterios lingüísticos, ambientales y de igualdad. Adaptarse a la legislación alimentaria y de consumo, revisar la documentación y plazos de autorización.
IZAN LITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILE ETA EZ-ERREGULATZAILEAK	POSIBLES ALTERNATIVAS REGULATORIAS Y NO REGULATORIAS
<p>Ez dago bestelako konponbide erregulatzailerik, ez eta ez-erregulatzailerik ere, eta, ondorioz, beharrezkoa da jaietako barrakak, feriak eta txosnak jartzeko araudibat martxan jartzea; hau da, ordenanza bat sortzea, besteak beste, erantzun diezaion Tolosako Udalak jaietako azken urteotan izan duten bilakaerari, udal-araudia eta baimenen prozedura egungo errealtitatera egokitura.</p> <p><i>Tolosan, 2025eko ekainaren 2a</i></p>	<p>No hay otro tipo de soluciones regulatorias ni no regulatorias, lo que hace necesaria la puesta en marcha de una normativa para la instalación de barracas, ferias y txosna en fiestas; es decir, la creación de una ordenanza para que, entre otras cosas, el Ayuntamiento de Tolosa responda a la evolución de las fiestas en los últimos años, adecuando la normativa municipal y el procedimiento de permisos a la realidad actual.</p> <p><i>En Tolosa, el 2 de junio del 2025</i></p>
Aitzol Gartzia Azurmendi Festetako zinegotzi delegatua	Aitzol Gartzia Azurmendi Concejal delegado de Fiestas



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024IORD0006-Iragarkia/Iragarkia (TOLOSAKO UDALA)